



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

Egilea - Auteur : Amets Arzallus
Iturria - Source : Interview de Kattalin Totorika-ren elkarrizketa-
Itzulpenak : Kattalin Totorika
Urtea - Année : 2004

ZALETASUN BATEN JATORRIA

« Aitarengandik heldu zait dena. Aita bertsolaria nuen etxean, beraz nik uste dut mundutxo honetan sortu nintzela. Ttipitatik aita besoetan hartu eta bazuen bertso-eskola bat Hendaian... Beraz, oinez ikasi baino lehen uste dut hango bidea ikasia nuela. Bera hasten zen eta uzten zidan niri segitzen, gaizki edo ongi, ez dakit errimatzen nuen, baina behintzat badakit zerbait erraten nuela. Ez dut sekulan pentsatu aita izan ari zela niri transmititu nahian edo ari zela kontzienteki ni pusatzen bertsoen bidera. Bertso zaharrak kantatzen zituen etxean eta bertso-saioetara eramaten ninduen. Gero, gustatu izan zaidanez, horregatik seguraski ez dut sentitu ari zela plazer hori nire baitan sortu nahian. Zaletasuna naturalki pasa da. Ttipitan, haur anitz joaten ziren Aitak eramaten zuen bertso-eskolara. Ez zen zerbait arraro. Oroitzen naiz nire klaseko batzu, orai errugbian ari direnak edo beste zernahi egiten dutenak, bertso-eskolan zirela gurekin. Gero behar bada bertsolaritza mundua urrunago gelditzen zitzaien. Baina garai hartan ez nintzen bakarrik, aski gauza normal bezala hartua zen. »

LEHENGO BERTSOLARIEN ILDOA

« Ttipitan ez nuen modelo berezirik, Aita izan ezik, egunero etxean nuelako. Gero, 13/14 urterekin ohartzen hasi nintzen noren bertsokera edo bertso egiteko moldea nahi nukeen eta norena hartu nahi nuen erreferentzia puntutzat edo segitzeko bidetzat. Eta galdetu izan didatelarik bertsolari gustukoena zein dudan : Jose Agirre esan izan dut. Behar bada Aitak bere hurbileko mundukoa ikusten zuen bezala, gu kaleko umeak, beste giro batean hazi gara eta beste puntan Jose Agirre, baserri mundukoa, mendi xokoan hazia, ttipitatik lanean aritu dena, oso beste erreferentzia... Hori bertsoetan sentitzen duzu ere. Bai erreferentziatzat hartzen dut garai bateko euskara eta esaera biziak erabiltzen zituelako eta gure testuingurua zein den kasik aurkakoena horkoa delako. Erreferentzia horiek denek baliatzen ditugu. Azken finean, entzun duzuetik eta behar bada miretsi edo gogoan atxiki dituzun haietatik oihartzunak etorriko zaizkizu. Gero, dudarik gabe, zuk egingen duzu zurea, baina sorkuntza prozesu horretan, nik uste denek gure idoloak edo modeloak, inkontzienteki bada ere, baina imitatzen enseiatzen garela. »



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

SORKUNTZAREN BIDEA

« Gai bat ematen dizutelarik, berehala kokatzen zara norbaiten larruan, edo zure larruan egoera baten aitzinean, eta normalki bukaera pentsatzen hasten zara, bertsoaren bukaerako azken puntu horrek baitu indarra bertsoan. Bukaera txarra bada, jendeak txartzat hartuko du bertsoa eta bukaera ona bada, ontzat. Gero, hastapenetik bukaerarainoko bideak hobe edo oker lezake baina bukaerak pisatuko du %90az. Bukaera horrek emanen dizu oina eta zer errima izango den. Baldin bada : « Hendaia etorri gira gezur batzu erratera... » tera, edo atera, edo era beharko duzu. Beraz hitzak pentsatzen dituzu horrekin eta dituzun hitz horien arabera joaten zara puntuz puntu osatzen. Anitzetan bukaera eta oin batzu dituzunean, hasten zara kantatzen, gehiago pentsatu gabe, edo denbora baduzu, baliatzen duzu hobeki zizelkatzeko. Oso zaila iduritzen zait prozesu hori aztertzea. Gai bat ematen dizutelarik, berehala milaka ideia etortzen zaizkizu lasterka eta nahasian, eta erabaki behar duzu nondik hartu gaia eta zer tonotan kantatu, zer erregistrotan, eta batzutan istorio baten barnean kokatu behar duzu. Anitzetan, saioetatik autoz itzultzen garenean, egoten gara pentsatzen jarri diguten gai horretan zer kantatzen ahalko genukeen. Damua gelditzen ahal zaizu ez bazara sobera kontent gelditu egin duzun lanarekin. Horrela segitzen duzu lantzen, gehiago sakontzen, edo heldu den aldirako bide berriak bilatzen. »

BERTSOLARIEN GAITASUNAK

« Hasteko bertsolariak euskara ongi menperatu behar du. Euskararekin jostatzeko heinean izan behar da, bertso anitzetan hori delako ideia mailan zuk duzun orijinaltasuna edo arrazoiketa. Gero, plazer bat sentitu behar duzu : ez baduzu plazer, ez duzu ikasiko ere. Gainera, uste dut behar dela "zerbait". Kirolean, ez baduzu oinarri fisiko bat sortzez, teknika anitz izaten ahal duzu, baina ez zara besteen heinean izanen. Bertsolaritzan gauza bera da : behar duzu gauzak atxemateko "txip" bat buruan, edo ikusten duzunari itzuli bat emateko gaitasun bat. Gero lantzen duzu edo ez duzu lantzen. Batzuk gaia sakon tratatzean ateratzen dute beren onena, beraz izango dute lirikotasun bat nonbait ; beste batzu umoretik hasten direnean, ia onenak dira. Bakoitzak bere nortasuna emanen dio bertsoari. Horretan behar da gaitasun berezi bat. Gero, bertsolariak gauza askoz pixka bat jakin behar du. Anitzetan da zerbait jakitea eta dakizun horren inguruan joko bat atxematea edo itzuli batzu ematea. Eskatzen du hala ere egunkariak irakurtzea eta aktualitatea segitzea. Ez dakit zein saiotan, erran zieten egun hartan hegazkin bat erori zela nonbait, eta gezurra zen. Bertsolari denek kantatu zuten seriooki, gertatu balitz bezala, eta atera zuten zerbait. Horrek esan nahi du, ez baldin badakizu sobera ere, zuk beti kantatuko duzula zerbait." »



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

GAI ETA BERTSORIK GUSTUKOENAK

« Niri gustatzen zait zerbaiten inguruan kantatzea baina nire larrutik, zeren eta anitzetan tokatzen baizaigu beste norbaiten larruan ematea, usu urrun gelditzen zaiguna. Nik ez dakit zenbat paperetan kantatuko nuen : izango nintzen noizbait ostalera, irakaslea, ikastolako haur baten gurasoa, futbolaria, pilotaria, idazlea, denetarik... Jose Agirre batek edo hirurogeita hamabost urteko batek aski esperientzia badu, baina guk oraindik gauza gutti ikusi dugu, eta beraz ematen dizkiguten paper batzu oso arrotz egiten zaizkigu. Asma genezake baina ez zaigu hain erreala edo hain errea egiten kantatzeko. Beraz tokatzen zaigunean gai baten inguruan gure larrutik kantatu beharra, nik uste hori dela barnean duzuna ateratzeko biderik zabalena eta argien ikusten dudana.

Badut Lazkao Txikiren bertso bat gogoan... Lazkao Txiki mutilzaharra zenez, gai horretan xaxatzen zuten anitz. Hauxe da behin eman zioten gaia : Abadiño herrian urtero bada festa bat eta egun hartan San Antoniori emazte bat eskatzeko aukera dute. Lazkao Txikiren bertsoa hauxe izan zen :

Azken aldian nola nabilen
neskarik bildu ezinda
berririk ezin aurkitu eta
lehen neuzkana galdeginda,
nik neska zahar bat eskatzen dizut
egongo zara jakinda
eta zaharrik ez badaukazu
gaztea ere berdin da.

Hori oso ona da ! »

ESTRESA MENPERATU

« Lotsa etorri baino lehen, deia gu hasia ginen. Eta horregatik pentsatzen dut gero jende aurrean ez gairela sobera lotsatu izan. Seguraski momentu batez pentsatu izan dugu zertan ari ginen, zer zen, baina momentu hori etorri zaigunerako nola azala egina genuen, seguraski horrek lagundu digu. Beste batzuei gogorra egiten zaie eta tentsio handia bizi dute. Nik ez dut inoiz sufritzerainoko tentsiorik izan. Saiotetan baduzu dardara ttipi bat edo zerbait kosk egiten dizuna barnean, baina niri ez dit inoiz arazorik sortu. Problema izaten ahal da baduzunean tentsio puntu hori eta hotza egiten duenean. Hor bai, dardara sortzen zaizula. Eta ematen zara oraindik urduriago zeren eta ez baitakizu urduritasuna ala hotza den. Baina behar da tentsio pixka bat. Kontzentrazioa eta zuk duzuna ahal bezainbat esplotatzeko egoera bat sortzen du. Bestela, arreta faltarekin eginen zenuke eta askoz hutsagoa joango litzateke. »



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

LEHEN URRATSAK

« Hendaiako bertso-eskolan hasi nintzen ikasten lehenik, eta gero bi urtez Oiartzunen ibili izan ginen : Hendaian bi gelditzen ginen eta ez zen aski bertso-eskola segitzeko. Gero, Hendaian berriz sortu zen talde osoago bat eta Bilbon hasi nintzenean ikasketak egiten, Azpeitiko bertso-eskolara joan nintzen. Orain Oiartzungo bertso-eskola batera joaten gara asteazken edo ostegun gaueetan : kantatzeko eta eritimoa ez galtzeko elkartzen gara.

Parte hartu nuen lehen txapelketa Gipuzkoako eskolarteko txapelketa zen. Han kantatu genuen Iparraldean ez zegoelako beste nehor, beraz Hendaikatik osatu genuen talde bat. Taldeka egiten zen 14 urtez azpikoena. Lehen urtean, zortzi urte nituela, ni, nire arreba eta Sustrai Colina ginen, hiruak. Beasainen kantatu genuen, publiko baten aitzinean. Lotsa oraindik ez genekien zer zen. Arrakasta izango genuen egoerarengatik, irringarria izango zelako, mutiko ttipi-ttipi batzu eta neska ttipia kantatzen 14 urtekoekin... Eta hurrengo urtean, 9 urterekin, berriz kantatu genuen eta hor finalera pasa ginen. Karmelo Baldan izan zen, Donostian. Uste dut ez ginela ohartzen ere zertan ari ginen. Gero nagusien mailara pasa ginen. »

ORAI ETA GERO

« Orai Hendaiako bertso-eskola animatzen dugu Sustrai Colinak eta biok. 14/15/16 urtekoekin ibiltzen gara. Urtetan ari dira eta ez balute afiziorik, utzia izanen zuket. Eta Iparraldean ere, azken urteetan, normalizatua ikusten dugu. Gu Kanboko kolegioan ibiltzen ginenean, bertsolaritza ez zen deus ere... Inportanteagoa zen futbolearen aritzea. Futbolearen aritzen bazinen, galdetzen zizuten zertan zinen eta nola joan zen asteburuko partida... Bertsotan aritzen bazinen, zure barnean atxikitzen zenuen eta inorekin ez zenuen aipatzen ahal zertan ari zinen ere. Orai normalago bezala ikusten da. Ez bertsotan aritzen dena bestea baino gehiago edo guttiago delako, baina bertsolariei buruz hitz egiten entzutea edo bertsotan ari diren batzu ikustea gauza normala delako.

Bertsolaritza garatzeko, saio gehiago antolatu behar genuke behar bada, iparralde mailan behintzat. Dena den, euskararen egoerari lotua da, hori segur. Euskarak berak egiten badu nabarmen momentu batean, bertsolaritzak berekin batera egiten du. Saioa aitzaki bat izan behar da azken finean horren inguruan zaletasuna berriz sortzeko. Kezka hori beti izan da bertsolarien artean : ez bada saiorik, bertsolaririk ez da izango. Gu horretan ari garenez, behar duguna da saioa izatea ahal bezainbat. Iparraldean « Bertsolarien Lagunak » elkartearen ari garenetik, funtzio hori ere bada, entseiatzea zabaltzea eta nola hedatu... Horrek bultzatzen gaitu pentsatzera zer egin litekeen zaletasuna gehiago zabaltzeko. »